

Gipuzkoako
Emakume eta
Gizonen
berdintasunerako
FOROA



F O R O
por la igualdad
de mujeres
y hombres
de Gipuzkoa

**EMAKUMEEN GARAIA,
BERDINTASUN GARAIA
ES TIEMPO DE MUJERES,
ES TIEMPO DE IGUALDAD**

III. Ekitaldia - III Encuentro

Salón del Trono
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Donostia - San Sebastián

Abenduak **4** diciembre
2009



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Departamento de Deportes y Acción Exterior

Giza Eskubideak Derechos Humanos

Lankidetzeta eta Berdintasuna Cooperación e Igualdad

III. Ekitaldia - III Encuentro

EGITARAUA

PROGRAMA

09:30 **Dokumentazio banaketa**

Entrega de documentación

09:45 **Ongietorria eta bileraren aurkezpena**
 · Iñaki Galdos Irazabal, Lehen Diputatu Nagusiordea

Bienvenida y presentación del encuentro
 · Iñaki Galdos Irazabal, Primer Teniente de Diputado General

10:00 **“Berdintasunaren eraikuntzan emakume-taldearen zeregina”**
 · Marcela Lagarde De los Ríos, Antropóloga feminista. México

“El papel de los grupos de mujeres en la construcción de la igualdad”
 · Marcela Lagarde De los Ríos, Antropóloga feminista. México

11:30 **Atsedena-kafea**

Descanso-café

12:00 **Emakumeen aldaketen esperientzien inguruko mahai-ingurua**
 Koordinatzailea:
 · Ana Agirre Saez de Eguilaz, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zerbitzuburua
 Parte-hartzaileak:
 · Juana Aranguren Rica, Plazandreak
 · Silvia Carrizo Fernández, Malen etxea
 · Nilda Susana Gorvein Rubinstein, Eraldatzen

Mesa de experiencias con asociaciones de mujeres
 Coordinadora:
 · Ana Agirre Saez de Eguilaz, Jefa de servicio de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad
 Participantes:
 · Juana Aranguren Rica, Plazandreak
 · Silvia Carrizo Fernández, Malen etxea
 · Nilda Susana Gorvein Rubinstein, Eraldatzen

13:15 **Eztabaida**

Coloquio

14:45 **Gipuzkoako emakumeen elkarten enpoderamendu eta parte-hartzearen lan prozesuaren garapena.**
 · Neus Albertos Merí generoan aditu eta aholkularia. Valencia
 · Juana Mari Astigarraga Zulaika, Lankidetzaren, Giza Eskubide eta Berdintasunerako zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Desarrollo del proceso de trabajo para el empoderamiento y la participación con las asociaciones de mujeres de Gipuzkoa.
 · Neus Albertos Merí Especialista y consultora en género. Valencia
 · Juana Mari Astigarraga Zulaika, Directora General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad, Diputación Foral de Gipuzkoa

14:30 **Bazkaria**

Comida

16:00 **Topaketaren amaiera**

Fin del encuentro



GIPUZKOAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALDEKO III. FOROA

Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko hirugarren foroa Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jargi Aretoan egin zen abenduaren 4an. Etnologo eta antropologo Marcela Lagarde-k, ekitaldiari kutsu latinoamerikar nabarmena emateaz gain, hitzaldi bat eskaini zuen berdintasunaren eraikuntzan emakumeen asoziazionismoak jokatu duen paperaz. Atlantikoaz beste aldetik etorritako ahotsek elkarteekin eratutako esperientzien mahaian ere izan zuten ordezkaritza; mahai horretan parte hartu zuten, halaber, Silvia Carrizo kazetariak eta Nilda Susana Gorvein abokatuak, argentinarrak biak ala biak. Mahaiko kide izan zen, berebat, Donostiako abokatu Juana Aranguren. Jardunaldiari amaia emateko, genero-aholkulari Neus Albertosek ekainean gauzatu zen II. Foroaren barruan Gipuzkoako emakume elkarteak ahalduz eta parte-hartzeko garatu zen lan prozesuaren ondorioak eman zituen jakitera.

Lehen diputatu nagusiorde Iñaki Galdosek egin zien ongi etorria bertaratuei eta hizlariei. Ondoren, adierazi zuen Aldundiaren gabeziak bat zela, hain zuzen ere, berdintasunari buruzko Zuzendaritza bat, baina hutsune hori bete dela eta gainera fruituak ematen ari dela, hala nola Berdintasunerako Foru Plana. Gipuzkoako emakume eta gizonen berdintasunerako foroari dagokionez adierazi zuen, aurrera pausua izan dela eta hausnarketa eta eztabaidarako prozesu hauetan guztietan aurrera egiteko ezinbesteko baliabidea dela.

Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasunerako zuzendari nagusi Juana Mari Astigarragak "gure maistren maistra" gisa aurkeztu zuen Marcela Lagarde. Horren curriculumetik nabarmenarazi zuen antropologiako doktorea dela eta etnologoa eta irakaslea Mexikoko Unibertsitate Autonomoan. Horretan gainera, Zientzia eta Giza Zientzietako Diziplina arteko

III FORO POR LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DE GIPUZKOA

El tercer encuentro del Foro por la Igualdad de mujeres y hombres de Gipuzkoa, que se celebró el 4 de diciembre en el Salón del Trono de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tuvo un acento muy latinoamericano protagonizado por la etnóloga y antropóloga mexicana Marcela Lagarde, quien ofreció una conferencia marco sobre el papel del asociacionismo de las mujeres en la construcción de la igualdad. Esas voces del otro lado del Atlántico también estuvieron representadas en la mesa de experiencias con asociaciones, en las que intervinieron la periodista argentina Silvia Carrizo y la abogada argentina Nilda Susana Gorvein. La mesa se

completó con la abogada donostiarra Juana Aranguren. Para rematar la jornada, la consultora en género Neus Albertos dio a conocer las conclusiones del proceso de trabajo para el empoderamiento y la participación con las asociaciones de mujeres de Gipuzkoa que se realizó a raíz del II Foro celebrado en el mes de junio.

Iñaki Galdos, Primer Teniente de Diputado General, dio la bienvenida a las asistentes y ponentes y aseguró que la creación de una Dirección que se dedicara a la igualdad era una carencia de la Diputación en este campo que se ha cubierto y está dando sus frutos, como el de la aprobación del Plan Foral de Igualdad. Con respecto al Foro por la Igualdad de mujeres y hombres de Gipuzkoa, indicó que también ha sido un paso hacia delante y que constituye un instrumento necesario para avanzar en todos estos procesos de reflexión y de debate.

Juana Mari Astigarraga, Directora General de Cooperación, Derechos Humanos e Igualdad presentó a Marcela Lagarde como "maestra de nuestras maestras". De su amplio currículo, destacó que es doctora en Antropología y etnóloga, profesora de la Universidad Autónoma de México, donde es asesora del Programa de Género del



Ikerketa Zentroko Genero Programako aholkulari aritzen da; eta emakume taldeekin eta sare feministekin lankidetzan aritzen da Emakume Zentro eta Institutuetan Mexikon, Latinoamerikan eta Espainian, baita ere UNIFEMen, OPSn, nazioarteko lankidetzaren erakundeetan eta sindikatu eta alderdi politikoetako emakumearen idazkaritzetan. Astigarraga andreak nabarmendu zuenez, Marcela Lagardek bere herrialdeko bizitza politikoan parte hartu du (iragan legegintzaldian Diputatu Federala izan zen) eta hainbat artikulu eta liburu idatzi ditu.

Desberdinak, baina antzekotasun antzekoak

Marcela Lagardek berdintasunaren eraikuntzan emakume taldeek jokatu duten paperean oinarritu zuen bere hitzaldia. Eta bereziki aztertu zuen gizarteak nola identifikatzen dituen emakumeak: *“oso-oso antzekoak bagina bezala, eta hain antzekoak ikusten gaitu gizarteak, ezen emakumeaz hitz egitean -edozein hizkuntzatan mintzatuta ere- ‘emakume’ kontzeptua erabiltzen dugu emakume guztiak horretan sartuz, errealitatean aurrean daukaguna emakume aniztasun zabal bat denean eta ez emakume estereotipatua”*.

Berak gehitu zuenez, norberak bizi izan dituen inguruabarrek eta bizitzak *“zehazten dute eta ahalbidetzen, pertsona bakoitza bakarra eta errepika ezina izatea”*. Celia Amorós-en kontzeptu bati buruzko aipamena ere egin zuen; horrek esaten zuenez, gizarteak emakume guztiak berdinak bagina bezala tratatzen gaitu, uste duelako emakume guztiok gauza bera behar dugula, gauza bera pentsatzen dugula eta edozein emakumek beste edozein emakume ordezka dezakeela. Ondoren, emakumeak bizitzaren arlo guztietan parte hartzeko duen premia plazaratetik sortutako fenomenoaz azaldu zuen.

“Leku askotan -gehitu zuen- batek ez daki zergatik dagoen bertan, edo bera dena delako edo emakumea delako. Zeren XXI. mendean jada ez du balio emakumerik ez egotea. Garrantzitsua emakume gorputz bat egotea da. Horrela, kuota sinbolikoaren antzeko zerbait betetzen da, baina ez gure eguneroko lanaz irabazi dugun kuota”.

Hori dela eta, Celia Amorós-ek azpimarratu zuenez, era askotako erakundeetan emakumeen parte-hartzeak emakumearen izaerari *“eta emakume bakoitzak ahal duen bezala eta nahi duen moduan eratzten duen bizitzari buruzko aurreiritziak desmuntatzeko aukera ematen du. Gure artean dagoen diferentzia aniztasuna onartzeak pertsonaren beraren kontzientzia handitzea eragiten du, eta hori baliagarria da oso. Norbera onartua eta asoziazionismoa gehitua izan daiteke eta hori asoziazionismoari edo emakumeen parte-hartzeko moduari egiten zaion ekarpena da”*, Celiaren hitzetan.

Centro de Investigaciones Interdisciplinarias de Investigaciones Interdisciplinarias en Ciencias y Humanidades, colaboradora de grupos y redes feministas, en Centros e Institutos de la Mujer en México, América Latina y España, de UNIFEM, OPS, de organismos de la Cooperación Internacional y de secretarías de la mujer de sindicatos y partidos políticos. También reseñó que ha participado en la vida política de su país, donde fue Diputada Federal en la pasada legislatura y que es autora de numerosos artículos y libros.

Diferentes con semejanzas múltiples

Marcela Lagarde centró su intervención en el papel de los grupos de mujeres en la construcción de la igualdad. Se detuvo en analizar cómo la sociedad identifica a las mujeres *“como si fuésemos muy parecidas, hasta el punto de que todavía -hablemos en el idioma en que hablemos- se emplea el concepto ‘la mujer’, cuando en realidad tenemos enfrente a una diversidad de mujeres y no a una mujer estereotipada”*.

Añadió que las circunstancias y el camino de vida que ha adquirido cada una *“matiza y le da sentido de ser a cada una, única e irrepetible”*. Hizo mención a un concepto de Celia Amorós, quien dice que la sociedad nos trata como idénticas, ya que considera que todas necesitamos lo mismo, pensamos lo mismo y podemos ser intercambiables. Explicó a continuación el fenómeno que se produce a partir del planteamiento de la necesidad de la participación de las mujeres en los distintos ámbitos de la vida.

“En muchos espacios -agregó- una no sabe si está ahí por lo que es totalmente o sólo porque es mujer. Porque ya no vale en este siglo XXI que no haya mujeres. Lo importante es que esté un cuerpo de mujer y se cubre una especie de cuota simbólica, no las cuotas que nos hemos ido construyendo a pulso”.

Por esto, resaltó que el encuentro de mujeres en infinidad de organizaciones de distinto tipo, permite desmontar prejuicios sobre la condición de las mujeres *“y sobre lo que cada una va armando en su vida como puede y como quiere. Reconocer las diferencias múltiples entre nosotras hace crecer la conciencia de la propia persona y eso es muy valioso. Una puede ser aceptada e incorporada con todo lo que es y ese es un aporte del asociacionismo o las formas de ocupación de las mujeres”*.

La etnóloga y antropóloga profundizó en otro fenómeno que se produce en el encuentro entre las mujeres: *“Con todas nuestras diferencias específicas, al mismo tiempo podemos reconocer semejanzas múltiples por esas biografías compartidas, comunes por generaciones”*. Y esas semejanzas, según advirtió, se dan en





Etnologo eta antropologoak emakumeen arteko topaketan sortzen den beste fenomeno batean ere sakondu zuen: *“Bakoitzaren berariazko diferentziak diferentzia, aldi berean antzekotasun anitzak dauzkagu elkarrekin belaunaldiz belaunaldi elkarrekin partekatzen ditugun biografia horiengatik”*. Eta antzekotasun horiek, berak ohartarazi zuenez, kontinente guztietan gertatzen dira. *“Belaunaldi bakoitzean batez ere mundu global bat partekatzen dugu, elkarren antzekoak egiten gaituzten gauza asko: erronkak, baldintza historikoak, ekonomikoak, sozialak, eta abar. Horiek eratzen dute, hain zuzen ere, emakume generoa, eta hori, oro har, norbere bizi baldintzez bereizita dago, emakume bakoitzak izan dituen baliabide eta gaitasunez, eta horiei zukua ateratzeko izan ditugun, edo ez, aukerez”*.

Zergatik elkartzen dira emakumeak?

“Bada, elkarrekin dauzkaten gauza interesgarrietan kolektiboki ados jartzeko elkartzen dira emakumeak, baina elkarrekin dauzkaten gauza interesgari horiek emakumeen ‘premiez haraindi’ doazenez, gizarteari eman behar zaizkio jakitera eta gainera gizartearen parte-hartzea lortu behar da”, jarraitu zuen Marcela Lagardek. Hizlariak gehitu zuenez, “gizarteari argi esan behar zaio, itzuli egin behar zaio, emakumeok zer behar dugun eta hori zergatik ez den berariaz emakumeei dagokien gaia, baizik eta gizarte osoarena, instituzioena. Emakumeen gaia, orokorra eta lehentasunezkoa da”. Ondoren, munduan izan den emakumeen asoziazionismoaren historiaren laburpen bat eskaini zuen eta adierazi, “gaur egun milioika emakume taldeetan antolatzeaz antropologian ‘gizarte bilbe berria’ deitzen zaiona eratu da eta hori lehen ez zen existitzen. Emakumeen elkartzeko posibilitate hori beste era batera parte hartzeko premian oinarritzen da eta lehen ukatzen eta oraindik nekez onartzen diguten aukeretara iristeko posibilitatean oinarritzen da”.

Eta Marcela Lagardek gehitu zuen, emakumeen asoziazionismoak, ‘gizarte bilbea’ eratzeaz gain, aparteko ekarpenak egin dituela, ohiz gainontzekoen beharrezan kezkatuta bizitzeko hezi gaituztelako. Besteen premia horiek dira emakume guztiak bete behar duten libreta, eta hori horrela izatea, gizartean benetan espezializatzea izan badaiteke ere, izatez benetako espezializazio afektiboa omen da. *“Gure afektuak inor zaintzeko landu dira”*. Puntu honetara iritsiz, galdetu zuen ea zer egin dezakegun *“emakumeok ez gaitzen izan besteak zaintzen duten bakarrak”*, eta ea zer egin dezakegun *“besteak zaintzen ematen dugun denbora geure buruari eskaintzeko”*. Adierazi zuen zaintzako espezializazio horrek eragin garrantzitsuak dauzkala gizartean, baina gehiago behar dugula. *“Orain bizi dugun hain mundu aldakorrean garatu eta sartu nahi badugu, oso*

todos los continentes. “Generacionalmente compartimos, sobre todo en un mundo global, muchas cosas que nos hacen asemejarnos entre nosotras: retos, condiciones históricas, económicas, sociales. Es lo que llamamos la condición de género de las mujeres, que está enmarcada a grandes rasgos por las condiciones de vida que tenemos, los recursos y la capacidad que tuvimos o no de aprovecharlos, de sacarles jugo y avanzar”.

¿Por qué se juntan las mujeres?

La razón de por qué se juntan las mujeres - continuó Marcela Lagarde- es para ponerse de acuerdo colectivamente en los intereses compartidos, que van *“algo más allá de las necesidades”* y para lograr que esos intereses de las mujeres puedan ser conocidos y compartidos por la sociedad. *“La sociedad necesita traducción, necesita que las mujeres le digamos qué necesitamos y por qué eso no es un asunto de las mujeres sino de toda la sociedad, de las instituciones, que es general y prioritario”*. Realizó un repaso por la breve historia del asociacionismo de las mujeres en el mundo y afirmó que los millones de mujeres organizadas en grupos aportan hoy en día algo que en antropología se denomina *“un nuevo tejido social”* que antes no existía. *“Esta posibilidad del encuentro de las mujeres está enmarcada en la necesidad de participar de una manera distinta, de acceder a oportunidades que nos eran negadas o todavía nos son escatimadas”*.

Además de aportar tejido social, agregó que el asociacionismo de las mujeres ha proporcionado aportaciones extraordinarias porque *“de manera tradicional -así nos han educado- hemos estado sensibilizadas a ocuparnos de las necesidades de los demás. Las necesidades de los otros es la cartilla general que tenemos todas y ese hecho, que puede ser una verdadera especialización social, es una especialización afectiva. Nuestros afectos están cincelados para cuidar”*. En este punto, se preguntó cómo lograr que *“no sólo las mujeres cuidemos”*, y *“cómo conseguir que las mujeres liberemos tiempo del cuidado preocupándonos de nosotras mismas”*. Afirmó que esa especialización del cuidado, socialmente tiene repercusiones importantes, pero necesitamos más. *“Necesitamos ser capaces de llevar a lo público otras necesidades importantes para el desarrollo y la incorporación en un mundo tan cambiante como el que vivimos ahora. Cantidad de organizaciones de mujeres lo han hecho, han llevado a lo público las necesidades de las mujeres: la necesidad de estudiar que es uno de los reclamos más importantes en nuestro tiempo”*.

garrantzitsuak diren beste premia batzuk maila publikora eramateko gai izan behar dugu. Emakumeen erakunde askok lortu dute hori, eta emakumeen premiak maila publikora eraman dituzte: ikasteko premia da garaiko eskaririk garrantzitsuenetakoa.”

“Hezkuntza behin eta berriz agertzen da Atlantikoaz bestaldeko herrialdeetan eta eskaririk indartsuena da munduaren alde honetako emakume gehienentzat. Bada beste bat ere: oinarri-oinarrizko insumo-ak eskura izatea, hala nola elikadura eta ura”.

Eredu berri bat garapen ekonomikorako

Mundu guztiko emakumeekin dauzkan harremanen bidez, Marcela Lagardek adierazi zuen emakumeen erakunde batzuek ekonomiaren arloko aldaketa garrantzitsuak eskatzen ari direla gizartean. *“Munduan gizarte moderno batzuek kontsumo ikaragarriak egiten dituzte eta harrapaketa handiak egin, baina irabaziak eta onurak ez datoz bat emakumeok egiten dugun ahalegin eskergarekin, emakumeari ez zaiolako ordaintzen hein berean. Munduko emakume gehienok asko ere asko lan egiten dugu, batzuetan gizonezkoek baino hiru bider gehiago, eta inor ez da harritzen ez ikaratzen. Emakumeak munduko ingurumenaz ere kezkatuta gaude eta zaintzeko eskatzen dugu. Zona hondatu batzuetan emakumeak ume elbarrituak ari dira erditzen. Emakumeak garapen ekonomiko eta sozialerako eredu berria ari dira eskatzen, ingurumenari eta garapen iraunkorrari lotuago egon behar duena”.*



Lagarde irakasleak emakumeen elkarte askok lortu nahi duten berdintasunaz ere hitz egin zuen, eta emakume eta gizonen artean bidezko harremanak eskatu zituen. Lan berbera egiten duten gizon eta emakumeen artean mundu osoan gertatzen den soldata desberdintasuna gogorarazi zuen. Lagardek jakitera eman zuenez, herrialde batzuetan desberdintasun hori %50ekoa da, beste batzuetan %30ekoa, edo %15ekoa. Emakumeentzat justizia eta eskubideak eskatzen dituzten emakumeen erakunde eta mugimenduei ere eskaini zizkien hitz batzuk. *“Ez gara herritar beteak, oraindik ez dugu itxi herritarra izatera iristeko bete behar dugun zirkulua. Ez gara eskubide osoko herritarrak, berdintasunik ez dugulako, eta hori ez du ulertzen jende askok”.* Adierazi zuen legeak aurrera pausu handia direla, legeak horretarako onartzen direlako, betetzeko. *“Horregatik, mundu osoko emakumeen mugimendu askoren asmoak Estatuarekin itun juridikoak lortzeko bidetik joan dira. Mugimendu asko eta askok aldaketa juridikoak eskatzen dituzte, eta legeetan emakumeen aldekoa dena zaintzeko mundu guztia ez dagoelako prest legea betetzeko”.*

Herrialde batzuetan emakumeentzat nortasun agiria lortzeak adierazten duena azaldu zuen, horrek herritartasunaren

La necesidad educativa aparece una y otra vez en países del otro lado del Atlántico y es uno de los reclamos más fuertes para la mayor parte de las mujeres de este mundo. Hay otro: la necesidad de contar con insumos básicos, como el acceso a la alimentación y al agua”.

Un nuevo modelo de desarrollo económico

A través del contacto que mantiene con mujeres de todo el mundo, Marcela Lagarde afirmó que hay organizaciones de mujeres que están reclamando un cambio importante en la economía, en la sociedad. *“Hay sociedades modernas con un alto consumo de derroche, un alto nivel de depredación, pero las ganancias y los beneficios no corresponden con el enorme esfuerzo que vamos aportando las mujeres, que no es retribuido de la misma manera. La mayor parte de las mujeres del mundo trabajamos muchísimo, a veces el tripe, y a nadie le asombra ni le asusta. Las mujeres en el mundo están reclamando también un cuidado en el medio ambiente. Hay zonas tan degradadas que las mujeres están pariendo criaturas incompletas. Reclaman un nuevo modelo de desarrollo económico y social ligado al medio ambiente y a un desarrollo sostenible”.*

También se refirió a la meta de la igualdad por la que trabajan muchas asociaciones de mujeres, para que haya una relación justa entre mujeres y hombres. Recordó las desigualdades salariales existentes en todo el mundo entre hombres y mujeres que realizan el mismo trabajo, que en algunos países alcanza el 50%, en otros el 30, o el 15. También recordó a las organizaciones

y movimientos de mujeres que han reclamado justicia y derecho para las mujeres. *“No somos ciudadanas, todavía no tenemos cerrado el ciclo de la ciudadanía, no gozamos de plenos derechos porque esto implicaría gozarlos en igualdad, cosa que no entiende mucha gente”.* Aseguró que las leyes suponen un gran avance, ya que se aprueban para ser cumplidas. *“Por eso los afanes de los movimientos de mujeres en el mundo han pasado por lograr pactos jurídicos en el Estado. Gran cantidad de movimientos inciden en reformas jurídicas, legislativas y que quede aquello que anhelamos en las leyes porque no todo el mundo está dispuesto a cumplir”.*

Explicó lo que en algunos países supone para las mujeres el hecho de conseguir un carné de identidad como símbolo de haber alcanzado la ciudadanía, una personalidad jurídica, un nombre reconocido en el Estado. *“Representa el acceso a, que es la clave de la ciudadanía para nosotras”.*


Igualdades puntuales y “la grandota”

Se explayó en la importancia que tiene para las mujeres la defensa de las libertades, *“las puntuales y la grandota”*, tan controladas por los sistemas patriarcales. *“Tenemos que nombrar*

sinboloa eskuratzea adierazten duelako, nortasun juridikoa, izen onartu bat Estatuan. “Emakumeontzat hori lortzea herritartasuna erdiestea delako”.

Berdintasun puntuala eta berdintasun “potoloa”

Emakumeontzat askatasunen, “puntualak eta potoloa”, defentsak duen garrantziaz ere hitz egin zuen, hau da, sistema patriarkalek hain kontrolatuak dituztenez. “Askatasun bakoitza izen berezi batez izendatu behar dugu, ulertu eta onartuak izan daitezten, guk geuk ere horiek zer diren jakin ditzagun. **Askatasuna** parte hartzeko, geure artean antolatzeko. Herrialde batzuetan emakumeek debekatuta daukate elkartzea edota egitura sozialari komeni zaion modu jakin batean antolatzea behartuta daude”. Vienako Mundu Konferentziari buruzko aipamena ere egin zuen. NBEk 1993. urtean antolatu zuen konferentzia horretan mundu guztiko 500.000 emakumek eskatu zuten “emakumeen giza eskubideak jasoko zituen adierazpena egiteko eta horretan jasotzeko, emakumeen eskubiderik gabe ez dagoela giza eskubiderik. Faltsua dela, beraz, erregimen batek giza eskubideak errespetatzen dituela, bertako emakumeak berdintasunik ez dutenean”.



“Vienako Konferentziak historian lehenbiziko aldiz adierazi zuen emakumeen eskubideak giza eskubideak direla eta Estatu guztiek gorde behar dituztela. Eskubide horiek babestu, bermatu, defendatu eta sustatu egin behar dituzte eta batez ere bermatu. Horixe izan zen emakume antolatuek desberdintasuna desagerrarazte aldera eman zuten beste urrats bat”.

Askatasuna lortzeko gaira itzuliz, adierazi zuen horixe izan zela Nazio Batuei egindako eskaeretan gehien errepikatu zen gaia. “Askatasunaren gakoa aukeratzeko gaitasunean datza, bereizteko gaitasunean. Gaur egun oraindik, era askotako botere patriarkalek, fundamentalistek, emakumeen askatasunaren arloko eskubideak ukatzen jarraitzen dute eta gizarte garaikide askotan oraindik orain eztabaidatzen ari dira emakumeok geure gorputzekin zer egin erabakitze eskubidea izan behar dugun ala ez. Askatasunak baldintza batzuk behar ditu gauzatzeko eta segurtasuna, erabakiak hartzerakoan. Vienako gailurrak emakumeei nahi dutena erabakitze eskubidea onartu zien, bizi diren komunitateek ezarritako obligazioez gaindi, baita era askotako sinesmenak -aldagarriak- onartzeko eskubidea ere, baldin eta beste pertsonen zor zaien errespetua urratzen ez bada”.

Emakumeen kontrako bortizkeria desagerrarazi

Marcela Lagardek ukitu zuen beste puntu bat, modernotasuna eta garapena sustatu zuena, emakumeen segurtasunik eza da, hots, ohiko segurtasunik ezari gehitu behar zaiona. “Bortizkeria da gairik garrantzitsuenetakoa, politikaren arlora iristea lortu baitu. Bortizkeria jada ez da sekretua, bortizkeriak jada ez dio emakumeari lotsarazten, errudun sentiarazten. Bortizkeria iluntasunetik atera eta gizartearen aurrean jartzea

cada libertad para que sea entendida y reconocida, para que las sepamos nosotras mismas. **Libertad** para participar, para organizarnos. Hay países donde las mujeres tienen prohibido reunirse o están obligadas a organizarse sólo en cierta manera que conviene a la estructura social”. Hizo alusión a la Conferencia Mundial de Viena organizada por la ONU en 1993, en la que 500.000 mujeres de todo el mundo exigieron que se realizara “una declaración que incorporase los derechos humanos de las mujeres y a la inversa, que dijera que sin los derechos de las mujeres no hay derechos humanos. O sea, que es falso que haya un régimen con derechos humanos cuando las mujeres no están en condiciones de igualdad.”

“La Conferencia de Viena declaró por primera vez en la historia que los derechos de las mujeres son derechos humanos y deben ser preservados por los Estados. Protegerlos, garantizarlos, defenderlos, promoverlos, pero sobre todo garantizarlos. Ése fue un paso más en la eliminación de la desigualdad por parte de las mujeres organizadas”.

Volviendo al tema de la consecución de la libertad, afirmó que éste fue uno de los elementos más recurridos en esta exigencia a las Naciones Unidas. “La clave de la libertad está en poder elegir, discernir. Todavía hoy, poderes patriarcales muy diversos, fundamentalistas, siguen escatimando los derechos contenidos en la libertad de las mujeres y las sociedades contemporáneas discuten si las mujeres tenemos el derecho o no a decidir qué hacer con nuestros cuerpos. La libertad requiere de condiciones para realizarse y habrá que tener la certeza de poder tomar la decisión. La cumbre de Viena reconoció el derecho de las mujeres a crear lo que quieren por encima de las obligaciones comunitarias y a defender el derecho de las creencias diversas, cambiantes, mientras no se lesione el respeto a otras personas”.

Erradicar la violencia contra las mujeres

Otro punto que comentó ha propulsado la modernidad y el desarrollo es la inseguridad para las mujeres, que se suma a las inseguridades tradicionales. “La violencia es uno de los temas que más han trascendido, que se ha logrado colocar en el ámbito público. La hemos sacado del secreto, de la vergüenza, de la culpa, y hemos logrado colocarla como un problema de la sociedad. Por eso, el eje de la **seguridad** para las mujeres contemporáneas es fundamental”.

Afirmó que no basta la búsqueda de la construcción de la igualdad, sino que es necesaria la **equidad** para eliminar las causas de la violencia

lortu dugu. Horregatik, egungo emakumeentzat funtsezkoa da **segurtasunaren ardatza**”.

Gehitu zuen berdintasunaren bilaketa ez dela nahikoa, premiazkoa dela **zuzentasuna** emakumearen kontrako bortizkeriaren kausak baztertzeko. “Bortizkeria desagerrarazi ahal da. Kontua ez da bortizkeria arintzea edo disimulatzea.

Emakumearen kontrako bortizkeria erabat desagerrarazi behar da gizartetik; eta batez ere gizarte horrek emakumearen kontrako bortizkeria onartu eta gainera hezkuntza informalean, eguneroko elkarbizitzaren eta adibide okerren bidez bultzatzen duenean. Hedabideetan emakumearen kontrako bortizkeria baliabide pedagogiko gisa erabiltzea, baztertu egin behar da mundu osoan eragin ikaragarria duelako”.

Eta jarraituz, adierazi zuen emakumeen segurtasunik onena beren kontrako bortizkeria gaitzesteko egoera sortzea dela. “Adituek diote fenomeno honen kausak desberdintasunean dautzala, gizonen nagusitasunean, horrek ematen dielako bortizkeria erabiltzeko aukera, baina bortizkeria hori matxismoaren atal bezala onartzeak ere, edo beste era batera esanda, generoaren ohiko eraketa horiek”.

Ondoren, emakumearen kontrako bortizkeriari herrialde batzuetan ematen zaion tratamendua aztertu zuen. Beste edozein bortizkeria balitz bezala tratatzen omen dute eta ironiaz Mexikon onartu dituzten neurri batzuk aipatu zituen, hala nola helikopteroak erabiltzea kaleak zaintzeko, emakumearen kontrako bortizkeria etxeetan, ikasgeletan edota fabriketan burutzen denean. Ildo beretik, adierazi zuen zein absurdoa gertatzen diren zaintza kamerak jartzea etorbideetan, emakume gehienak argirik ez duten kolonietan bizi direnean. “Guk badakigu irtenbidea ez doala hortik. Guk gizonen nagusitasuna, pribilegioa, gailentasuna desmuntatu behar dugu, agintzen duten maskulinitasun bortitzaren ereduak; eta, gainera, berdintasunarekin eta zuzentasunarekin zerikusi duten beste gauza asko ere egin behar ditugu”.

Bere ideiak indartuz, adierazi zuen kanpainak ez direla nahikoa eta bere herrialdea jarri zuen adibidetzat. Han emakumeak justizia ustela salatzerantz animatzen dituzte, hain zuzen ere, “salatzerantz joate hutsagatik emakumea instituzioen bortizkeriaren biktima izan daitekeen lekuan”. Hori dela eta, lege batzuk egin behar izan dituzte -Marcela Legardek berak ere parte hartu zuen horien idazketan-, adibidez, emakumeei bortizkeriarik gabeko bitzta librea bermatzeko lege orokorra. “Espainiako legea eman ondoren ▶



contra las mujeres. “Es posible erradicarla. No se trata de paliar, de disminuirla. Se trata de erradicar las condiciones de la violencia contra las mujeres en sociedades que la han aceptado y que además la promueven a través de la educación informal, de la convivencia cotidiana, del ejemplo, que es brutal, como recurso pedagógico de la violencia y de los medios masivos de comunicación, que tiene un impacto en el mundo entero impresionante”.

Continuó afirmando que la seguridad de las mujeres consistiría en generar condiciones de reprobación a la violencia contra ellas. “Las expertas dicen que las causas de este fenómeno están en la desigualdad, en la supremacía de los hombres, que es la que les permite ejercer violencia, como aceptar parte del machismo, de estas construcciones de género”.

Revisó la situación de algunos países en los que se trata la violencia contra las mujeres como si fuera cualquier tipo de violencia y relató con ironía algunas medidas adoptadas en México, como la vigilancia de las calles a través de helicópteros cuando la violencia contra las mujeres está en los hogares, en las aulas o las fábricas. En esta misma línea, comentó lo absurdo que resulta la instalación de cámaras de vigilancia en las avenidas, cuando la mayor parte de las mujeres vive en colonias donde no hay luz. “Nosotras sabemos que la solución no va por ahí. Lo que tenemos que desmontar es la supremacía, los privilegios, los superpoderes de los hombres, los modelos de masculinidad violenta imperantes y, además, hacer muchas otras cosas que tienen que ver con la igualdad y con la equidad”.

Reforzó su idea asegurando que no bastan las campañas y volvió a poner el ejemplo de su país, en el que se anima a denunciar a las mujeres ante una justicia corrupta, “donde incluso si una va a denunciar puede ser víctima de la violencia institucional”. Por ello, explicó que han tenido que redactar leyes, en las cuales participó la propia Marcela Legarde, como la Ley General de acceso de las mujeres a una vida libre de violencia. “La hicimos después de la Ley de España y ha permitido aplicar 800.000 medidas precautorias, que probablemente han salvado la vida a estas 800.000 mujeres”.

“Al contrario que la española, que sólo trata la violencia en las parejas como violencia de género, la mexicana abarca la violencia de pareja, familiar, la que pueden ejercer grupos comunitarios, la institucional y la feminicida. Distingue distintos tipos de violencia: la física, sexual, económica, psicológica y la patrimonial. Es complejísima. Cinco tipos y cinco modernidades de violencia que pueden actuar simultáneamente, porque así es la vida. Y donde no está garantizada la democracia ni el desarrollo para todas las personas, a situación de las mujeres es más arriesgada. Hicimos esa Ley pensando en generar las condiciones para garantizar la seguridad de las mujeres en el ámbito privado ▶

idatzi genuen lege hori. Eta horren bidez 800.000 neurri aplikatu ahal izan dira, seguru aski 800.000 emakume horien bizitzak salbatu ahal izan dituztenak”.

“Bikoteen barruko biolentzia genero bortizkeriatzat jotzen duen Espainiako legeak bezala, Mexikokoak ere bikoteetako biolentzia hartzen du kontuan, baina baita talde komunitarioek egin dezaketena, instituzioek egin dezaketena eta emakumeak hiltzen dituen ere hartzen ditu kontuan. Biolentzia motak bereizten ditu: fisikoa, sexuala, ekonomikoa, psikologikoa eta ondarearena. Oso konplexua da. Bost mota eta biolentziaren bost bide moderno elkar batera eman daitezkeenak, bizitza holakoa delako. Eta, jakina, demokrazia eta pertsona guztien garapena bermatuta ez daudenean, emakumearen egoera askoz ere arriskutsuagoa da. Emakumeen segurtasuna arlo pribatu eta publikoan bermatzeko pentsatuz egin genuen lege hori, baita emakumearentzat arrisku psikologiko, sexual eta ekonomikoa dakarren edozein egoerari aurrea hartzeko ere, edota lan eta hezkuntza arloko arriskuetatik ateratzeko”.

Sarean egotearen garrantzia ere aipatu zuen, “gure ekintzak indartzeko aukera ematen duelako, baita informazioa zabaltzeko ere. Guk baliabide ikaragarria daukagu informazioa gure alde erabiltzeko. Jardun ahal izateak erantzukizuna eskatzen du. Emakumeok, gure prozesu eta erakundeetan, erantzukizun handia dugu emakumeen giza eskubideak eraikitzea jardura iraunkorra izan dadin. Ez da beste emakume batzuei, sindikatuetakoei edo alderdi politikoetakoei edota gobernuan daudenei dagokien kontua, guztiona baizik. Sinergia baterantz jo behar dugu, munduko hainbat herrialdeetan lortu ditugun eskubide puntualak defendatu eta ez galtzeko”.

Eskuratuaren defentsa

Gehitu zuen emakumeen eskubideak beti daudela arriskuan eta edozein unetan gal daitezkeela. Honetara iritsita, talibanen Afganistango kasua aipatu zuen: “emakumeei giza nortasuna kendu zizkieten eta esklabutzarik ankerrenaren mende jarri. Guk egiten dugunaren mende daude, eta guk eskubideak berreskura ditzakegu”.

Bere herrialdeko kasua ere aipatu zuen. “Arlo juridikoan eman ditugun aurrera pausu guztiekin, emakumeen eta feministen mugimenduekin eta bestelako mugimendu demokratikoekin hainbat gauza lortu ditugu: aurrekontuak, programak, sareak, kontzientzia. Baina, bat batean, eraso erreakzionario eta kontserbadorea etorri zen, ikaragarria. Federazio bakoitza legeak egiten hasi zen (Mexiko errepublika federala da, eta federazio bakoitzak bere kongresua dauka legeak egiteko) eta jada 17 federazioetako kongresuak amatasun eskubidea murrizten hasi dira, emakumeek giza eskubideetan lortu duten aurrerakuntza mugatzeko. Federazioz federazio ari dira guretzat funtsezkoak diren azken urteetan lortutako eskubideak mugatzen”.

Egoera horri erantzunez, Marcela Lagardek proposatu zuenez “irabazitako guztia kontzientzia eta argitasun handiz

y en el público y para prevenir cualquier circunstancia que conduzca a las mujeres a una situación de riesgo psicológico, sexual, económico, laboral, educativo, en cualquier espacio”.

Desarrolló la idea de estar en red, “que implica potenciar nuestras acciones y también, potenciar información. Nosotras tenemos un recurso enorme en información. Poder actuar implica responsabilidades en la acción. Las mujeres en nuestros procesos y organizaciones tenemos la responsabilidad de hacer sostenible la construcción de los derechos humanos de las mujeres. No es un asunto que les toca a otras, a las de los sindicatos o a las de los partidos o las del gobierno, nos toca a todas. Necesitaríamos apuntar a una sinergia para poder defender y no perder derechos puntuales que hemos logrado en partes del mundo”.

La defensa de lo adquirido

Declaró que los derechos de las mujeres siempre están en riesgo y se pueden perder y se fijó en el caso de los talibanes en Afganistán, donde ante nuestros ojos “las mujeres quedaron como subhumanas, sometidas a una esclavitud brutal. De lo que hagamos dependerá que ellas y nosotras podamos recuperar derechos”.

También reveló el caso de su país. “Con todos los avances en el terreno jurídico, con los movimientos de mujeres y feministas y con otros movimientos democráticos, logramos cosas: presupuestos, más programas, las redes, conciencia. Pero, de repente, llega una oleada reaccionaria y conservadora, terrible, que nos empieza a legislar en cada entidad federativa (México es una república federal en la que cada lugar tiene su propio congreso y legisla) y ya van 17 entidades federativas las que legislan el derecho a la vida desde la concepción como respuesta al avance de los derechos humanos de las mujeres. Nos van legislando localmente y minando la posibilidad del ejercicio de los derechos fundamentales para todas nosotras”.

Como respuesta, Marcela Lagarde propuso que hay que defender “con mucha conciencia y lucidez, todo lo que hemos ganado”. Reconoció que es preciso que la sociedad comprenda que si las mujeres perdemos los derechos pierde la sociedad entera, “porque es un daño a la convivencia pacífica, porque si se puede lesionar con esa impunidad a las mujeres, se está ejerciendo la violencia brutal a la luz pública contra las mujeres. En el caso de México se están asignando más derechos a los productos ligados a la vida sexual de las mujeres que a las mujeres,





defendatu behar da". Eta azaldu zuen premiazkoa dela gizarteak onartzea emakumeok eskubideak galtzen baditugu, gizarte osoa aterako dela galtzaile, "elkarbizitza baketsua urratzen delako, zeren emakumeak inpunitate horrekin mindu badaitezke, emakumeen kontrako bortizkeria basatia egiten da jendaurrean. Mexikora itzuliz, adierazi zuenez, emakumeen bizitza sexualari lotutako produktuei eskubide gehiago ari zaie ematen, emakumeari berari baino. Emakumeoi giza eskubideak kentzen ari zaizkigu inolako giza eskubiderik eduki beharko ez luketen produktuei emateko".

Proposamena, elkarrekin bakoitzean egin daitekeenaz gain, zera da: "emakumeok eskubideak edukitzeko eskubidea daukagula onartzea, modernotasunaz inbestitutako gizakiak garela. Modernotasunean oinarritu behar gara eskubide horiek defendatzeko, zabaltzeko eta geroz eta gehiago sendotzeko".

Berdintasunaren beloa

Marcela Lagarderen hitzek eragin zuten elkarrizketan, lehenbizikoz aipatu zen jardunaldi osoan zehar, aldaketa txiki batzuekin, behin eta berriro aipatu zen gai bat: emakumeen belaunaldi berriek uste dutela ez dagoela benetako desberdintasunik eta emakumeok eskubide guztiak lortu ditugula.

Hizlariak erantzun zuen fenomeno hori beti gertatu dela belaunaldiz belaunaldi. "Gertatzen da orain bizi baldintza hobek daukagula, gehiago parte hartzen da mundu askoz ere mistoagoa den honetan: hezkuntzan, gizarteetan, kirolean... Horrek guztiak berdintasuna eta nahastura elkarrekin nahastea dakar. Baina feminismoa ez da eskoletan ikasten. Emakumeek berdintasunaren alde egin duten irakasten, ezabatuta dago liburuetatik. Gatazkak eta gerrak irakasten dizkigute, baina inoiz ere ez nola joan garen eskubideak sortuz edo nola planteatu ditugun gauzak". Aipatu zuen, halaber, gaztaroan eta gizarte garatuetan, hezkuntza eta elikadura esku-eskura dutenetan, emakume eta gizonen arteko berdintasun estrukturalerako baldintza hobek daudela, baina adinean aurrera egin ahala ohartzen gara desberdintasunak egon badaudela, eta publikoan baino gehiago pribatuan. "Gai hau konplexua eta zaila da, baina iruditzen zait informazio mekanismoak aurkitu behar ditugula gazteei laguntzeko".

Bere herrialdera itzuliz, adierazi zuen bere herrialdean 500.000 neska haurdun erregistratzen direla, eta Latinoamerikan ezin konta ahalak direla papilomaren birusaz jotakoak. "Munduak ez du ulertzen garaiz aurreko amatasun horiek desberdintasuna eragiten dutela emakume horientzat eta beren seme-alabentzat. Latinoamerikako familia ereduak gizonezkoek ez dute ardurarik hartzen. Mexikon, familien bostenean emakumeak dira familia buru. Gainontzekoetan, emakume noiz behinka

nos están quitando los derechos humanos a las mujeres para otorgárselo a un producto que no tendría por qué tener derechos humanos".

La propuesta, con independencia de lo que se haga en cada asociación, es "que tengamos una conciencia profunda de que somos mujeres que tenemos el derecho a tener derechos, que somos seres humanos investidas de modernidad. Es desde la modernidad desde donde tenemos que defender esos derechos y ampliarlos y consolidarlos cada vez más".

El velo de la igualdad

En el coloquio que suscitó la intervención de Marcela Lagarde salió por primera vez a relucir una cuestión que a lo largo de la jornada se repetiría con alguna variante: la percepción que las nuevas generaciones de mujeres tienen de que no hay desigualdad real y de que las mujeres hemos conseguido todos los derechos.

La ponente respondió que ese fenómeno se ha producido siempre, en todas las generaciones. "Lo que ocurre es que ahora se dan condiciones mucho más favorables, se participa en un mundo bastante más mixto: educación, participación social, deportiva. Todo eso hace confundir la igualdad con mixtura. Pero el feminismo no se enseña en las escuelas. No se estudia la historia de la causa de las mujeres por la igualdad, es una causa borrada. Nos enseñan las batallas, las guerras, pero nunca cómo hemos ido generando derechos o cómo hemos ido planteando las cosas". También hizo alusión a que en edades tempranas y en sociedades desarrolladas, con acceso a la educación y a la alimentación, hay mayores condiciones de igualdad estructurales entre mujeres y hombres pero es un poco más adelante cuando aparecen las desigualdades, no tanto en lo público como en lo privado. "El tema es complejo, difícil, pero me parece que tenemos que encontrar los mecanismos de información para la ayuda a las adolescentes".

Evidenció el caso de su país, donde se registran 500.000 embarazos de niñas o adolescentes y de toda América latina, donde las afectadas por el virus del papiloma son incontables. "Lo que no entiende el mundo es que esas maternidades a destiempo construyen desigualdad para esas mujeres y para sus hijos e hijas. En el modelo familiar en América Latina, los hombres no se hacen cargo. En México, la quinta parte de los hogares es "jefaturado" (así se dice en demografía) por mujeres solas. La otra parte, por mujeres semi-acompañadas (de vez en cuando él llega de visita). Estas chicas están absolutamente desprotegidas". Por esto, alegó que

lagunduak (gizonezkoa noiz behinka joaten zaie bisitan). Neska horiek ez dute inolako babesik” Hori dela, “emakumeen ardura duten estatuak lortu behar ditugu; botere guztiek neskatila eta neska nerabe horien giza eskubideak babestuko dituzten estatuak”, gehitu zuen Marcela Lagarde hizlariak”.

Proiektu gisa, eta emakumeen arteko anaitasunean oinarrituz, proposatu zuen emakumeen elkarreetan neska nerabe horiek adoptatzea. “Geure erantzukizuna da gure hezkuntza instituzioei hezkuntza sexuala irakaskuntzara gehitzeko eskatzea, hori munduan bizitzeko funtsezko baliabidea delako. Nerabe horiek eta emakume askok berdintasunaren beloa daukagu. Badutela berdintasuna uste dute eta desafiatazailerik eta ausartegiak dira. Nola kentzen da ausartegia eta desafioan aritzeko gogo hori? Genero kontzientziatziaz. Babes estalki bat zabaldu behar dugu, haur eta neska nerabe horien guztien genero kontzientziarena egingo duena”.

Emakumezkoen merkatu sexualaren orriak

Errepikatu zen beste galdera batean zera jakin nahi zen: ea emakumeen sareen batek ahaleginak egiten dituen hedabideen bidez transmititzen den biolentzia desagerrarazteko, belaunaldi berriak hedabideetan zabaltzen denaz elikatzen direlako, eta nola lagundu hedabide horiek zuzentasun, berdintasun eta askatasunean oinarritutako formula erabil dezaten.

Marcela Lagardek erantzun zuenez, emakumeok “hedabideen kontrola eta erreforma bultzatu behar dugu”. Adierazi zuen Mexikon hedabideen legea genero ikuspegiarekin erreformatzeko eskatu dutela. “Hori dela eta, eztabaida sakona sortu da emakumeen askatasuna hedabideen askatasunaren kontra jarri dutelako eta guk argudiatu behar dugu askatasunak nola eraikitzen diren eta horiek nola garatu behar diren besteen askatasunak kaltetu gabe. Bertan egon behar dugu eta geure eskubidea dela jakinarazi mundu guztiari, eta horretan ari diren emakumeen erakundeei lagundu”.

Iragarki sexualak dituzten orrialdeei “emakumeen sexu azokaren orrialdeak” deitu zien eta merkatu horren atzean desberdintasuna, mendekotasuna eta emakumeak gauza balira bezala tratatzea ezkututzen dela. “Pertsonak saltzen dira, esklabutzara modernoa da, eta hori nazioarteko hedabidea duten agerkarietan eskaintzen da, agerkeriko beste ataletan ustez ideia aurreratu eta demokratikoak defendatzen dituzten orrien artean txertaturik”.

Gehitu zuen emakumeak gauza asko egin ditzakeela kontsumitzaile gisa; emakumeak kontrola dezake “zer kontsumitu, zer irakurri, nora bidali gure diruak, zein legitimatzen dugun”. Eskatu zuen, halaber, hedabideak aldatu egin behar direla eta emakumeak egon behar direla horien zuzendaritza kontseiluetan, argitaratutako informazioan benetan eragina izateko. “Lan neketsu eta konplexua da, tartean interes handiak eta globalak daudelako, baina lor



“tenemos que lograr Estados responsables con las mujeres, Estados en los que todos los poderes cumplan con la protección de los derechos humanos de esas niñas y adolescentes”.

Propuso como proyecto, por “sororidad”, impulsar desde las asociaciones la “adopción” de las adolescentes. “Es una responsabilidad nuestra exigir a las instituciones educativas que incorporen la educación sexual, que es un recurso elemental para la vida en el mundo. Ellas y muchas de las mujeres tenemos un velo de la igualdad. Creen que están en igualdad y son retadoras y temerarias. ¿Con qué se elimina la temeridad y el deseo de retar? Con conciencia de género. Tenemos que extender un manto protector que sea la conciencia de género para todas esas niñas y adolescentes”.

Las hojas del mercado sexual de mujeres

Otra de las preguntas incidió en si desde alguna red de mujeres se está tratando de erradicar el grado de violencia que se transmite a través de los medios de comunicación, ya que las nuevas generaciones se nutren de lo que ahí se difunde, y en cómo ayudar para que los medios defiendan esta otra fórmula de equidad, de igualdad y de libertad.

Marcela Lagarde contestó diciendo que las mujeres “tenemos que impulsar un control y una reforma de los medios”. Explicó el caso de México, donde se ha presentado una reforma con perspectiva de género a la ley de medios. “Ahí hay una discusión profunda porque oponen la libertad de las mujeres a la de los medios y nosotras tenemos que argumentar en torno a cómo se construyen las libertades y cómo éstas tienen que desarrollarse sin lesionar las libertades de otros. Tenemos que estar ahí y asumir que es un asunto nuestro, hacerlo explícito y apoyar a las organizaciones que lo están haciendo”.

Definió las páginas de los anuncios sexuales como las “hojas del mercado sexual de mujeres” y denunció que detrás de este mercado está la desigualdad, la dominación, la cosificación de las mujeres. “Hay trata de personas, es la esclavitud moderna, y eso está encartado en periódicos de distribución internacional que se supone defienden ideas avanzadas y democráticas en otras secciones”.

dezakegu. Zuek daukazuen genero bortizkeriaren kontrako lege integraleko artikuluko batean biolentzia goraiatzeko debekatzen da, baina artikuluek ez dute ezer balio herritarrok zaintzen ez badugu, hau da, herritarrok hedabideak zaintzeko behatoki bat ez badugu. Zuek baduzue aukera holako bat sortzeko”.

Esperientziak elkarri trukatzeko mahaia

Kooperazioa, Giza Eskubideak eta Berdintasuna Zerbitzuko buru Ana Agirrek hitzaldiaren ondoren eratu zen esperientziaren mahaiko hiru protagonistak aurkeztu eta adierazi zuten interesgarria izan daitekeela mahai hori jardunaldi hauetara gehitzea, emakumeen erakundeek elkar ezagutzeko. Horrela, zerbitzuburuaren hitzetan, elkar ezagutze horretatik, elkar onartzea sor daiteke eta era horretara sinergiak piztu daitezke. “Elkar ezagutzuz baino ezingo dugu jakin zein diren komunean dauzkagun elementuak, alegia,aldi berean jarduketa bateraturako aukera emango dizkigutenak. Horixe da, hain zuzen, ahalduzko eta parte hartzeko gakoetako bat, baita Zuzendaritzak lurraldeko emakumeen elkarteekin batera abian jartzen ari garen ekimen guztiei zentzua emango diena ere”.

Honako hauek ziren hiru elkarteak: Plazandreak, Malen Etxea eta Eraldatzen.



Erakunde parte-hartzaileen politika feminista

